



HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA
HEZKUNTZA SAILA



ERALDATZEN PROGRAMA-KONTRATUA
unibertsitatez kanpoko irakaskuntza
ematen duten Hezkuntza Sailaren
menpeko ikastetxeentzat 2024-2027



1. SARRERA.....	2
2. ERALDATZEN PROGRAMAREN DEFINIZIOA.....	5
3. PROGRAMAREN IKASTETXE HARTZAILEAK.....	5
4. PROGRAMA-KONTRATUAREN EZAUGARRIAK ETA GARAPENA.....	6
5. JARDUKETA-EREMUAK.....	6
6. ERALDATZEN PROGRAMAREN HELBURU ZEHATZAK ETA ESKU HARTZEKO EREMUAK.....	7
7. ALDEEN KONPROMISOAK.....	10
8. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	13
9. ERALDATZEN SAREA.....	16
10. ERANSKINAK:	
I. Programa-kontratuaren akordio-eredua.....	20
II. eranskina. Palankaestrategiak.....	22
III. eranskina. Ikastetxearen konpromisoen segida.....	25



1.- SARRERA

EAEko hezkuntzak, bere inklusio-politiken bidez, rol eraldatzailea izan du azken hamarkadetan, Euskal Hezkuntza Sistema osoaren ondasun komuna eta partekatua izateraino.

Jakin badakigu ziurgabetasunez betetako garai batean bizi garela. Garai berriak dira, pentsatzeko, ekiteko eta harremanetan sartzeko modu berri batzuk dakartzaten garaiak. Horrek guztiak errealitate berrien aurrean jartzen gaitu, baita hezkuntza-erronkak barneratzeko agertoki berri bat eta tresna berriak diseinatzeko premiaren aurrean ere. Kalitatezko irakaskuntza bermatu nahi dugu eta guztiontzako ikaskuntza iraunkorreko aukerak sustatu nahi ditugu inoiz amaitutzat jotzen ez den prozesu baten barruan. Irakaskuntza eraldatzailea eskaini nahi dugu, non ikasleak beren arrakasta akademiko eta pertsonalaren protagonista diren.

Hezkuntzako Europako Espazioari eta harago begira 2021-2030 aldirako hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan European lankidetzan aritzeko esparru estrategikoari buruzko Kontseiluaren 2021/C/66/01 Ebazpenaren arabera, hezkuntzan eta prestakuntzan denontzako kalitatea, ekitatea eta inklusioa hobetzea da hurrengo hamarkadarako lehentasunezko estrategia.

EAEko Hezkuntzaren Legeak (17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, EAEko Hezkuntzarena) proposatzen duen euskal hezkuntza-sistema oinarritzen da bizikidetzaren, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ardatz diren balioetan, eskola inklusiboaren esparruan, non ikasle guztiek izango baitute aukera kalitatezko hezkuntza jasotzeko eta bizitzarako kompetentziak ahalik eta gehien garatzeko. Berezi garrantzitsua da kompetentzia komunikatiboa eta linguistikoa, oinarritzko eta ezinbesteko kompetentzia baita arrakasta akademikoa lortzeko. Kompetentzia horren barruan, oso garrantzitsua da irakurmen-estrategiak eskuratzea, ezagutza eta ikaskuntza iraunkorrerako sarbidea baita. Halaber, nahitaezkoa da kompetentzia matematikoa eta zientifikoa garatzea, bizitzaren premiekin lotutako arazoak interpretatu, azaldu eta horiei erantzuna eman ahal izateko.

78/2024 Dekretuak (ekainaren 18koa, hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzutekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat) aniztasunari erantzutea deritzo hezkuntza-arloko politika, kultura eta jardunbideen multzoari (planak, metodologiak, estrategiak, neurriak, laguntzak eta abar), betiere multzo hori ikasleen garapena erraztera bideratuta ez ezik, haien gaitasunetara, ikasteko estilora, interesetara, egoera pertsonaletara, sozialetara, osasun-baldintzetara eta baldintza ekonomiko, kultural eta funtzionaletara egokituta ere baldin badago.



Testuinguru horretan, Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Planaren arabera, hezkuntza inklusiboa da ikasle guztiek kalitatezko hezkuntzarako sarbidea izatea bermatzen duen hezkuntza eta, horrez gain, ikasle guztiek bizitzarako konpetentziak ahalik eta gehien garatzea nahi duen hezkuntza. Haur guztiei ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzuteko beharrezkoa da ikasle guztientzako balio duten estrategiak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketen oztopoak ezabatzea. Horretarako, erabat aldatu behar dira eskolaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak.

Horrek guztiak behartu egiten gaitu Administrazioaren aldetik eta ikastetxeen aldetik rol berriak berraztertzea. *EAEko Hezkuntzaren Legeak (17/2023 Legea) ikastetxeen autonomia-printzipioa eta ikastetxeak kudeatzeko tresnak jasotzen ditu.* Helburua da ikastetxeak ahaldundutzea, Euskal Hezkuntza Sistemaren kalitatea hobetzeko testuinguruak eskatzen dizkien egokitzapen- eta eraldaketa-prozesuak gauzatu ditzaten, Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak une bakoitzean diseinatutako hezkuntza-politikaren ardatzekin bat eginez.

Hezkuntza Sailburuordetzak hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen ditu gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat. 6. artikuluan, aukera gutxiagoko inguruetakoa ikastetxeetan osotasunean esku hartzeko egitasmotzat definitzen dira antolaketaren ingurukoak, curriculumaren ingurukoak edo tutoretzen ingurukoak diren ekintzak. Era berean, ikastegiak beren kasa ekin diezaiekete egitasmo horiei **edo hezkuntza-administrazioak proposa diezaioke** ikastegi jakin bati, **betiere erantzun beharreko egoeraren bat antzemanaz gero, ikastegiak planifikazioaren eta interbentzioaren ardura nagusia hartzea sustatuta.**

Horrenbestez, ikastetxeei autonomia eta protagonismo handiagoa ematen jarraitu behar da, eta Administrazioaren eta ikastetxeen arteko erantzunkidetasuna sustatu, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa duten **programa-kontratuen** bidez. Ikastetxeen benetako autonomia eta sistemaren kalitatea bera, neurri handi batean, plangintza estrategikoaren eta ikastetxeek eraldaketa-prozesuan behar bezala aurrera egiteko izan behar duten autoantolaketarako eta autonomia pedagogikorako eta kudeaketa-autonomiarako espazio existentziala behar bezala antolatua izatearen baitan egongo da. Horretarako, gainera, ezinbestekoa izango da lidergo pedagogiko partekatua garatzea.

Esparru-dokumentu hau zaugarritasun eta zailtasun handiagoko egoeratan lan egiten duten eta desabantaila sozial, ekonomiko eta kulturean dauden ikasleak hartzen dituzten ikastetxeetan zentratzen da, zeinetan bikaintasunerantz pixkanaka aurrera egiten duen hezkuntza berritzaile bat sustatu nahi den.



Eraldatzen programa 2021-2022 ikasturtean abiarazi zen, eta erronka horri eman nahi dio erantzuna. Haren helburu nagusia da **hezkuntza-arrakasta sustatzea, ikasleen garapen pertsonal eta sozial ahalik eta handiena lortzen laguntzeko baliabide gisa; eta, horretarako, Hobekuntza Plan bat ezarri eta egikarituko da**. Proiektu hori ikastetxe bakoitzak Hezkuntza Sailarekin duen erantzunkidetasun-kontratuan (programa-kontratuan) islatuko da.

Laguntza-zerbitzuen aholkularitzarekin egingo da: Irakats-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI) eta hezkuntza-ikuskaritza. Hobekuntza Plana hiru ikasturterako diseinatuko da, baina laugarren urte batez ere zabaldu ahal izango da. Honako hauek barne hartuko ditu: hasierako diagnostikoa, aurreikusitako jarduketa-ildoetako lotutako helburuak, helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintzak (palanka-estrategiak) eta **ebidentzietan oinarritutako ebaluazio sistematiko batean jasotako lorpen-adierazleak**.

Bestetik, hezkuntza-komunitateak plan horretan duen rola onartu eta ikasleen ongizate psikosoziala lortzen laguntzen duten sistemekiko harremana aktiboki sustatu behar da.

Azken hamarkadetan, euskal hezkuntzak aurrera egin du, zalantzarik gabeko lorpenekin, herrialde garatuen batez bestekoaren oso gaineratik jartzen gaituzten eta sistema hobetzen lagundu duten adierazleetan: eskola-uzte goiztiarra (% 4,8, Europako % 9,7aren eta Espainiako % 13,3aren aurrean), eskolatze goiztiarra (% 90,8ra iristen da 2 urtekoen etapan, eta ehunekoak gora egiten du % 99,1 arte 5 urtekoen etapan), edo graduazio-tasa (DBHn % 87,6koa da)¹.

Hala ere, konplexutasun handiko inguruneetako emaitza akademikoen adierazleek erronka bat dakarte ikastetxeentzat eta Administrazioarentzat. Ingurune baztertu horietan, emaitza txarrak izaten dituzten ikasle ugari daude. Benetan inklusiboa den eta ikasle guztientzat maila guztietan eta hezkuntza- eta prestakuntza-mota guztietan aukeraber dintasuna ziurtatzen duen hezkuntza bermatzeko, lortutako ikasketa-maila eta emaitza akademikoak egoera sozialetik, ekonomikotik eta kulturaletik edo beste inguruabar pertsonaletatik berezi behar dira.

¹ [Hezkuntza Sistemaren diagnostikoa 2023 - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)



2.- ERALDATZEN PROGRAMAREN DEFINIZIOA

Aurreko apartatuaren amaieran jasotzen den moduan, hautatutako ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren artean garatuko den PROGRAMA-KONTRATUA da. Haren helburu nagusia da hezkuntza-arrakasta sustatzea, ikasleen garapen pertsonal eta sozial ahalik eta handiena lortzen laguntzeko baliabide gisa; eta, horretarako, Hobekuntza Plan bat ezarri eta egikariturako da. Hori guztia alde bakoitzak (ikastetxea eta Hezkuntza Saila) onartuko dituen konpromisoak definituko dituen erantzunkidetasun-kontratu batean islatuko da. (Ikus I. eranskina).

Programa-kontratu horren esparruan ikastegiak egiten dituzten hobekuntza-planek barne hartuko dituzte familien partaidetza, ikastegietako bizikidetzaren positiboa, hezkuntza inklusiboa, gaitasunen ikaskuntzaren oinarri izango den metodologia berritzailea eta **ikasle guztien emaitza akademikoak hobetzea** lortzeko jarduketak.

Hori guztia egingo da ikastetxeak pixkanaka eta modu arduratsuan bere **autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa** beren gain hartzea ahalbidetuko duen esparru batean, egungo gizartearen premietara eta ezaugarrietara egokituko den hezkuntza-sistema baterantz aurrera egiteko, **ikasle guztien** inklusioa, berdintasuna, ekitatea eta **hezkuntza-kalitatea** sustatuta.

3.- PROGRAMAREN IKASTETXE HARTZAILEAK

Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak dira hartzaileak, baldin eta aintzat hartutako etapa guztiak edo horien parte bat ematen badituzte, **hezkuntza konplexutasunaren indizea (HKI)²** kontuan izanda. I. eranskinean jasotako programa-kontratuaren eredua oinarri hartuta gauzatuko da ikastetxeko zuzendaritzaren eta

² HKI: Hauek dira indize honetan kontuan izaten diren aldagaiak:

- Ebaluazio diagnostikoan ikasleek lortutako emaitza. Ebaluatutako konpetentzia bakoitzaren hasierako mailan geratzen den ikasleen ehunekoaren batez bestekoa da.
- Ikasleen emaitza ikastetxeen barne-ebaluazioan. Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasturtearen amaieran oinarriko bost konpetentziak gainditu ez dituzten ikasleen ehunekoaren batez bestekoa da.
- Ikastetxeko indize sozioekonomiko eta kulturala, azken ebaluazio diagnostikoa egiten duten ikasleak oinarri hartuta kalkulaturakoa. Ikastetxeko maila sozioekonomikoaren aldagai orokor bat da.
- Ikasle ez egokiak. Ikastetxeko/etapako ikasle ez egokien ehunekoa; hau da, adina aintzat hartuta dagokiona baino maila txikiagoan eskolatuta daudenak.
- Ikastegian beka duten ikasleak. Aurreko ikasturtean materiala erosteko beka jaso duten ikastetxeko eta etapako ikasleen ehunekoa da.
- Atzerritik datozen ikastegiko ikasleak. Atzerritik datozen ikastegiko eta etapako ikasleen ehunekoa.
- Hezkuntza-laguntzako premiak dituzten ikasleak. Laguntza-premiak dituzten ikasleen ehunekoa, Hezkuntza Sailaren datu-basean zehazki definitutakoak eta kontabilizatutakoak.
- Ikasleek ikastegian duten jarraitutasuna. Etapa osoan ikastegi berean ikasi duten ikasleen ehunekoa da.



Hezkuntzako Sailburuordetzaren arteko akordioa (lehena hezkuntza-komunitatearen ordezkari gisa eta bigarrena Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa).

Ikastetxeak bere borondatez parte hartuko du kontratu-programan; baina, nolahi ere, honako hauek izan beharko ditu:

- **Irakasleen klaustroaren % 60ren konpromisoa** gutxienez.
- Ikastegiko **OOG**aren parte hartzeko **onarpena**.

4.- PROGRAMA-KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Hauek dira programa-kontratu baten helburuak eta ezaugarriak:

- a) Kudeatzeko autonomia bermatzea, eta aldeen ardurak eta konpromisoak argi eta garbi mugatzea.
- b) Helburua zehaztea eta ezartzea zein erabaki dagozkion ikastegiari eta zein Hezkuntza Sailari.
- c) Hobetzeko Plan bat ezartzea, zeinetan ikastegiko zuzendaritzak konpromisoa hartzen duen kuantifika daitezkeen helburuak lortzeko. Horixe da funtsezko ezaugarria; izan ere, helburu horiek aukera ematen dute kudeaketaren eta programa-kontratuaren eraginkortasuna ebaluatzeko.

2024-25 ikasturte honetan programarekin bat egiten duten ikastegiei hausnarketa- eta ekintza-prozesu bat abiaraziko dute ikastegian. Ikasturte bakoitza aurreko ikasturtean egindako jardueren ebaluaziotik eta hobetzeko proposamenetatik abiatuta planifikatuko da. Ikastegiei hiru ikasturte dituzte eskola-arrakastaren helburuak lortzeko.

5.- JARDUKETA-EREMUAK

Eraldatzen programa **hiru jarduketa-eremutan** egituratzen da, eta ikastegiei horien inguruan ardaztu beharko dituzte euren hobetzeko planeko jarduerak.

1. **Zaugarritasun-egoeran dauden ikasleak:** Ikasleen gutxieneko hezkuntza-baldintzak ziurtatzea. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntzea.
2. **Ikastegiaren jarrerak:** Hezkuntzaren kalitatea eta hezkuntza-errealitatea hobetzera bideratutako jarrera positiboak garatzea.
3. **Irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak:** Irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesua hobetzea hobekuntza etengabea azpimarratzeko.



Jarduketa-eremu horiek bat datoz Hezkuntza Sailburuordetzaren lehentasunezko 5 ardatzekin:

1. **Lidergo pedagogikoa eta hezkuntza eraldaketa**
2. **Hezkuntza-ebaluazioa**
3. **Euskara eta eleaniztasun aberastua**
4. **Digitalizazio arduratsua**
5. **Eskola inklusiboa, bizikidetza eta ongizatea**

6.- JARDUKETA-EREMU BAKOITZAREN HELBURU ZEHATZAK

1. Jarduketa-eremuarekin lotutako helburuak: zaugarritasun-egoeran dauden ikasleak

- Ikaskuntzaren eskola-emaizak hobetzea** konpetentzien esparruaren barruan.
- Hautemate goiztiarrerako eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleekin esku hartzeko prozedurak garatzea.
- Mailaz igarotzen ez diren ikasleen kopurua murriztea.
- Eskola-absentismoa murriztea.
- Konpetentzien hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa murriztea.
- Ikaskuntza-ingurunea hobetzea: erresilientzia eta hazkuntza-mentalitatea.
- Zaugarritasun-egoeran dauden ikasleen ahalduntzea hobetzea.
- Hezkuntza Sistema goiz uztea prebenitzea.
- Inguruneko eragileekin (Udala, Osakidetza, entitateak...) lankidetzan aritzea, ikasle guztien hezkuntza-baldintza egokiak ziurtatzeko.



2. Jarduketa-eremuaren helburuak: ikastegiaren jarrerak

-Ikastegian bizikidetzaren positiboa sustatzea.

-Ikasleen banakako segimendua egitea ahalbidetzen duten antolaketa- eta metodologia-aldaketak ezartzea, euren gaitasunak garatzeko eta hezkuntza-premiei erantzuteko ikuspegi inklusibo batetik abiatuta, ikasleen sarbidea, parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzeko.

-Hezkuntza formala, ez-formala eta informala txertatzea helburuak lortzeko.

-Irakasleek ikasleei buruz dituzten igurikimen positiboak mantentzea eta horiei eustea.

-Ikasleen ikaskuntza-prozesuan esku hartzen duten ikastegiko profesionalen koordinazioa eta talde-lana hobetzea.

Irakasleen garapen profesionala bultzatzea hobekuntzarako etengabeko prozesuaren barruan, zeinetan funtsezkoa baita ebidentzietan oinarritutako ebaluazio sistematikoa.

3. Jarduketa-eremuaren helburua: irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak

Goiz hautematea oinarritzko gaitasunak eskuratzeko oztopoak, ikasteko zailtasunak eta premiak irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuetan.

Escolan oinarritutako esku-hartze inklusiboen ereduak garatzea metodologia aktibo eta parte-hartzaile eraginkorrenak erabiliz oinarritzko gaitasunak lortzeko eta IKTen erabilera arduratsua sustatuz.

Baliabide didaktikoen erabilera eta kalitatea hobetzea.

Gaitasun sozioemozionalen lanketa eta garapena areagotzea, heziketa integrala sustatzeko.

Ebaluazio hezigarri eta inklusibo bat sistematizatzea.

Ebaluaziorako estrategiak eta tresnak sistematizatzea (autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa) ebaluazio eraginkorra egiteko ebidentziak lortzeko eta etengabeko hobekuntzarantz aurrera egiteko erabakiak hartu ahal izateko.

Planifikazio-arloko aurrerapenak eta lorpenak finkatzea, agiri lotesleen bidez (Ikastegiko Hezkuntza Proiektua, Ikastegiko Urteko Plana...).



Hobetzeko Planaren helburu zehatzak lortzeko, **palanka-estrategia** (hemendik aurrera, **PE**) jakin batzuk diseinatu eta ezarriko dira. PEa eraldaketa globalaren prozesua dinamizatzeko ikastegi batek ezartzen duen ekimena da. Ez da kudeaketaren, metodologiaren edo curriculumaren alderdi zehatz bati heldu edo hura konpontzeko unean uneko ekimen bat. PEak ikastegiaren beraren azterketan antzemandako behar batetik sortzen dira, eta helburu batzuk lortzeko lantzen dira; beraz, estrategiak ikastegiaren funtsezko alderdi bat ase behar du, aurrera egin dezan hobetzeko planaren esparruan. PE horietako batzuk aipatuko ditugu, adibide gisa:

- Ikastegiak planifikatutako estrategia/ekintza bat, laguntza- edo indargarri-sistemak antolatuzko: Bidelaguna, HBSP eta Hedatze.
- Ikastegiaren eta familien arteko komunikazio eraginkorrerako prozedura bat, ikasle guztien eta maila guztietan hezkuntza-baldintzak bermatzeko beharrezkoa den informazioa azkar emate aldera.
- Sare bat ikastegiaren inguruko erakunde publiko eta pribatuekin, parteka daitezkeen baliabideak baliatzeko ikasle guztien onurarako.
- Aldaketa metodologikoa.
- Gaitasun matematikoa eta zientifikoa hobetzeko plan bat diseinatzea.
- Irakurrizko ulermena garatzea.
- ...

Ez da PEtzat hartuko Hezkuntza Sailak sustatutako planetako dokumentuak egitea: Bizikidetza Plana, Hezkidetza Plana, Aniztasunari Erantzuteko Plana, etab.

PE kontzeptu berria argitzeko xedez, II. Eranskinean programaren jarduketa-eremuei lotutako adibideak bildu dira.



7.- ALDEEN KONPROMISOAK ETA EKINTZEN SEGIDA:

7.1.- Hezkuntza Sailaren konpromisoak

1. Ikastegiei orientazioa, laguntza eta babesa ematea ikastegiaren beharrei erantzungo dien hobetzeko plana diseinatu, garatu eta ebaluatzean, haien eskola-emaitzetatik abiatuta, ikuspegi inklusiboaren arabera. Plan horretan, ikastegiak parte hartzen duen plan, programa edo proiektuen ildo estrategikoak sartzen dira, ikastegi bakoitzak hobetzeko plan bakarria izan dezan.
2. Ikastegiko programaren arduradunei kalitatezko prestakuntza ematea.
3. Ikastegien sareko lana sustatzea, ezagutzak eta esperientziak trukatu eta ikastegietan gauzatzen diren jardunbide egokiak hedatzeko.
4. Beharrezkoak diren material gehigarriak ematea.
5. Programaren ebaluazio globala egitea.

7.2.- Ikastegien konpromisoak

Oro har, programan parte hartzen duten **ikastegiek** honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Ikastegian egonkortasuna duten irakasleen artean *Eraldatzen* programaren arduradun bat izendatzea, gutxienez lanaldiaren 1/3ko dedikazioarekin, honako eginkizun hauek betetzeko:
 - a. Ikastegian programa dinamizatzea.
 - b. Ikastegian zehaztutako talde eragilearen bilerak zuzentzea.
 - c. *Eraldatzen* sarearen aldizkako bileretan parte hartzea, baita antola litezkeen prestakuntza-saio espezifikoetan ere. *Eraldatzen* sareari dagozkion saioak nahitaezkoak dira, eta ezarritako ordutegia bete beharko da.
 - d. Ikastegiari esleitutako tutorearekin harreman arina mantentzea.
 - e. *Eraldatzen* sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastegiko talde eragilearekin koordinatuta.
 - f. Ikastegiko irakasleentzako prestakuntza diseinatzeko, kudeatzeko eta ematen laguntzea.
 - g. Ikastegian ezartzen diren PEak tutorizatzea eta gainbegiratzea.
 - h. Administrazioak eskatzen dituen datuak biltzea eta ematea.



- i. Programa honetarako esleitutako diru-partidaren kudeaketa ekonomikoan laguntzea (fakturen kontrola, ordaintzen frogagiriak...).
 - j. Talde Teknikoari ebaluazioaren datuak jakinaraztea eta ematea.
2. Programaren **talde eragile** gisa jardungo duen ikastegiko koordinazio-egitura definitzea, *Eraldatzen* programaren arduradunaren gidaritzapean, programaren jarraipen proaktiboa bultzatu, dinamizatu, sustatu eta egiteko helburuarekin.
3. Hobetzeko plana diseinatu, aplikatu, jarraitu eta ebaluatzea, ikastegiaren diagnostiko orokor batetik abiatuta, Hezkuntza Proiektuaren esparruko identitatearekin, filosofiarekin eta ildo estrategikoekin bat.
4. Ikastegiaren Urteko Planean Palanka Estrategien Planaren (PEP) garapena zehaztea, gaitasun matematikoko eta zientifikoko eta irakurketa-prozesuko emaitzak hobetzeko esku hartuko dela bermatzeko.
5. Irakasle guztien konpromisoari eta inplikazioari mesede egingo dion lidergo pedagogikoa onartu eta garatzea, baita Hobetzeko Planaren ezarpena ahalbidetuko duena ere.
6. *Eraldatzen* sarean eta bertan zehazten den lan-planean bete-betean parte hartzea:
 - Sarearen bilera orokorrak
 - PE-ekin lotutako azpisareen bilerak
 - Aurrerago, praktika komunitarioaren ereduan
7. Programa ikastegiaren ohiko funtzionamenduan sartzea, hezkuntza-komunitateak partekatutako eta bere gain hartutako proiektu gisa.
8. Programan aurreikusitako jarduketan aldi behingo segimendua egitea, eta lortutako emaitzak eta antzemandako ahuleziak dokumentuetan jasotzea. Horiek hobetu egin beharko dira.
9. Programan aurreikusitako jarduerekin lotutako ebaluazio-adierazle kuantitatiboen arabera ebaluazioa egitea, eta lortutako emaitzak eta antzemandako ahuleziak dokumentuetan jasotzea. Horiek hobetu egin beharko dira, eta urtero kontuak eman beharko zaizkio, bai eta eskatzen dituzten datu guztiak ere, Hezkuntza Sailean berariaz ezarritako batzordeari.



10. Erreferentziako ikuskariarekin lankidetzan aritzea programaren jarraipenean eta ebaluazioan.
11. Eskatzen diren datu guztiak ematea eta programaren segimenduan eta ebaluazioan parte hartzea.
12. Klaustro osoari Hobetzeko Planaren berri ematea, parte har dezatela sustatzea eta gaiari buruz sentsibilizatzea.
13. Programari dagokion dokumentazio guztia behar bezala kudeatu eta gordetzea.


Konpromiso horiek **III. eranskinean** zehaztuta eta sekuentziaz daude.

Ikastegiak Hezkuntza Sailaren finantzaketa erabili ahal izango du PEak ezartzearekin lotutako gastuak ordaintzeko, Talde Teknikoak onartu ondoren. Eginiko gastuen kudeaketak indarreko legeria eta Hezkuntza Sailak aurretiaz ezarritako prozedurak errespetatu beharko ditu.

Ikastegiak konpromiso horiek bete ezean, Talde Teknikoaren balorazio negatiboa jasoko du; eta, horren ondorioz, baliteke programa-kontratua etetea eta jasotako dirua itzuli behar izatea.

8.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Eraldatzen programaren antolaketa **organigrama** honen bidez egituratuko da:



8.1- BATZORDE ESTRATEGIKOA

ERALDATZEN ekimen instituzionaleko programa bat da, Hezkuntza Sailburuordetzak bultzatua **batzorde estrategiko** baten bidez. Honako hauek osatzen dute batzorde estrategikoa:

- Hezkuntzako sailburuordea
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria
- Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako zerbitziburua
- Ikuskari nagusia
- Hezkuntza Saileko aholkularia
- ISEI-IVEIko zuzendaria

Hauek dira batzorde horren funtzioak:

- Estrategiaren betetze-mailaren jarraipena egitea (*Eraldatzen Programa*).
- Batzorde Teknikoa osatuko duten pertsonak aukeratzea eta harekin koordinatzea.
- Batzorde Teknikoaren funtzioak eta *Eraldatzen* sarearenak zehaztea.
- Programaren aholkularitza-, jarraipen- eta ebaluazio-eredua definitzea.
- *Eraldatzen* programaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.



Proposatutako helburuak lortzeko, programa garatzea sustatzeko helburua kontuan hartuta, **batzorde estrategikoak** batzorde tekniko bat sortuko du haren bi ordezkari koordinatuta.

Hauek dira batzorde teknikoaren partaideak:

- Berritzeguneko 8 aholkulari.
- Hezkuntzako 3 ikuskari.
- ISEI-IVEIko 1 ordezkari.
- Beharren arabera, adituak deituko dira.

Hauek dira batzorde horren funtzioak:

- Programaren garapen orokorra planifikatzea hiru ikasturteetarako.
- **Ikastegien arteko lankidetzaren sareak ezartzea** ezagutzak eta esperientziak trukatzuz ikaskuntza jarraituko formula berriak sortzen lagundu ahal izateko.
 - *Eraldatzen* sarea antolatzea, dinamizatzea eta kudeatzea:
 - o *Eraldatzen* sarearen bileren egutegia ezartzea.
 - o Sarearen bileren edukia diseinatzea.
 - o Sarearen bilera dinamizatzea.
 - o PE-en inguruan azpisareak sortzea eta horien jarraipena egitea.
 - o Komunitate birtual bat sortzea sarea osatzen duten ikastegien komunikaziorako, koordinaziorako eta lankidetzarako, eta, era berean, materialak eta esperientziak partekatzeko gunea izatea.
 - o *Eraldatzen* arduradunek garatu beharreko zereginak diseinatzea eta planifikatzea ikastegietan, eta laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
- Ikastegi bakoitzeko *Eraldatzen* arduradunak aholkatzea, laguntzea, prestatzea eta gainbegiratzea.
- Tutore bakoitzak (tutoretzen bidez) bere tutoretzapeko ikastegien Hobetzeko Planaren garapenean aholkatzea, eta hura gainbegiratu eta ebaluatzea.
- Tresnak, laguntza-orientabideak eta baliabideak egitea programaren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.
- Batzordekideentzako berariazko prestakuntza-plana egitea.
- Ikastegiek aldiro ezarri beharko dituzten zeregin zehatzak diseinatzea.
- Batzorde Estrategikoari informatzea programaren garapenari eta, emaitza partzial eta globalei buruz; horretarako, programaren jarraipen eta ebaluazio-prozesuari buruzko memoria bat egingo du, baita txosten bat ere lortutako emaitzei, jardunbide egokien identifikazioari eta antzemandako hobekuntza-eremuei buruz.



8.2.- Hezkuntza Ikuskaritzaren gainbegiratze- eta ebaluazio-lana

Ikuskariak jakingo du bere erreferentziako ikastegiak Eraldatzen programan parte hartzen duela, eta jarraipen- eta ebaluazio-lana egingo du **ikuskaritza-prozesuaren esparruan**. Eraldatzen programaren Batzorde Teknikoan parte hartzen duten ikuskariek bitartekaritza-lana egingo dute batzorde horren eta ikastegietako erreferentziako ikuskariaren artean, ikuspegi orokorra eta lurralde bakoitzeko ikastegietako kasu partikularrak partekatuta.

Parte hartzen duten ikastegietan, tutoretza Talde Teknikoa osatzen duten Berritzeguneko aholkulariek gauzatuko dute. Batzorde Teknikoko ikuskariek tutoretza-lanak egingo dituzte beren erreferentziako ikastegietan, Berritzeguneko aholkulariarekin lankidetzan.

8.3.- ISEI-IVEIren ebaluazio-lana

Ebaluazio-planak "jarraipen-eskema" bat du, adierazleekin. 5 adierazlek definitzen dute jarraipena.

Adierazlea	Iturria
Eskolatzte-aldia eteten duten ikasleen kopurua Eskola uztea Absentismo-maila PE-etan	Ikasleen datuak Ikastegia edo hezkuntzako ikuskaritza
Ikasketaren emaitzak	Ikasleen oharrak
Ikasleen ehunekoa hasierako mailan	Ebaluazio diagnostikoa
Ikaskuntza-ingurunea: <ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen erresilientzia ● Zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleekiko sentikortasuna ikastegian 	Ikasleei eta irakasleei eginiko galdetegia



8.4.- IKASTEGIA:

Ikastegia da, unitate gisa, ikasleekin esku hartzean hezkuntza-ildo bat bermatzea ahalbidetzen duena, irakasleek ikastegiko proiektuekin lotura izatea bermatuz. Talde eragileak, lidergo partekatuaren bidez, profesionalek egingo dituzten jarduketan barne koordinazioa eta koherentzia sustatuko ditu, eta kanpo eragileekin lankidetzaz ezartzea ahalbidetuko du.

Zuzendaritza-taldeak Hobetzeko Plana ezagutuko du eta haren erantzule gorenaz izango da. Planaren ezarpenaren jarraipen-lana egingo du eta lortutako emaitzak aztertuko ditu, helburuen lorpen-maila ezagutzeko. Era berean, *Eraldatzen* arduradunarekin batera, programari dagokion dokumentazio guztia behar bezala kudeatuko du.

Ikastegiak irakasleen talde osoari jakinaraziko dizkio jarraipen-lanaren emaitzak, Hobetzeko Planaren ebaluazioaren eta ikasleen emaitza akademikoak.

Ikasturte bakoitza amaitzean, ikastegiak Urteko Memorian jasoko du garapenaren eta lortutako emaitzen ebaluazioa Hobetzeko Plana aplikatzean, eta hezkuntza-komunitateari jakinaraziko dio, ezarritako mekanismoen arabera.

Programak **ikastegietan aldaketarako barne-ahalmena sortzera** zuzenduta egon behar du eta, era berean, **helburu nagusia ikasleen ikaskuntza-emaitzetan eragitea izan behar da.**

“Ikastegiko planteamendu bakar” bat lortu beharko da. Eta, horren bidez, hezkuntza-errealitatea pixkanaka hobetzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak gauzatuko dira.

8.5.- Eraldatzen programaren arduraduna eta ikastegi barruko talde eragilea

Halaber, ikastegi bakoitzak egokitzat jotzen duen koordinazio-egitura erabiliko du bere programaren eta Hobetzeko Planaren jarraipena egiteko, programaren talde eragile gisa erabiliz egitura hori. Nolanahi ere, *Eraldatzen* programako arduradunak talde horretan hartuko du parte, eta programaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko alderdiak gidatuko ditu.

Ikastegiak akordioan ezarritako emaitzen adierazleek lortutako balioa ziurtatu beharko du, eta Batzorde Teknikoak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

9.- ERALDATZEN SAREA

Sareak irakaskuntza-jardunari lotutako harremanak, komunikazioa eta hausnarketa bultzatzen jarraitu nahi du hezkuntzako profesionalen arteko lankidetzaz lana sustatuta. Horrez gain, espazioak sortzen jarraitu nahi du parte hartzen duen ikastegietako hezkuntza-errealitatea hobetzeko ezagutza, informazio eta esperientzia **hezigarrien** trukerako eta hedapenerako.



➤ **Talde handiaren lana:**

Ikastegi parte-hartzaile bakoitzeko *Eraldatzen* programako arduradunek sareko aldizkako bileretan hartuko dute parte; non arduradun horiek prestatzen lagunduko duten, baita ondoren *Eraldatzen* arduradunak bere ikastegian egin beharko dituen jarduerak planifikatzen, bultzatzen, ezartzen, laguntzen eta ebaluatzen ere. Arduradunak ahalduntzea baino ez da sareko aholkularitza mota horren helburua, hausnarketaren bidean haien ikastegietako katalizatzaileak izan daitezzen berezko praktikari, lehenetsuen arabera lan-ildoak planifikatzeari eta ebaluazioari buruz hain eraginkorrak ez diren lan-ildoak birbideratzeko eta arrakastatsuenak sustatzeko.

Ikasturtean 3 edo 4 bilera egingo dira; hiru hilean behin, asteazkenetan. Talde Teknikoak bilerarako deialdia egingo die arduradunei, eta 5 orduz jardungo dute lanean (09: 30-14:30).

➤ **Azpisareen lana:**

Helburuak:

-Jardun pedagogikoaren egitura tradizionala baztertzea eta parte hartzen duten irakasleen inplikazioa, konpromisoa eta ekimena eskatzen duen lan egiteko modua sustatzea.

-Hausnarketarako eta elkarrizketarako espazio eta denbora-tarte bat irekitzea, hezkuntzako profesionalen arteko berdintasun-plano batean, egunerokoan ikastegietan lortzeko oso zaila dena.

-Irakaskuntza jarduna komunitarioa, kolaboratiboa eta solidarioa izan dadila sustatzea. Irakasleei aukerak ematea zailtasun handiko hezkuntza-errealitateetan ekintzak eraiki eta garatzeko.

-Ikastegiaren autonomia sustatzea. Horretarako, gaitasuna emango zaio lan komunitarioan erabakiak hartzeko; eta, horren bidez, hezkuntza-errealitateei erantzuna emateko konpromiso kolektiboa sustatuko da.

-Hausnarketarako prozesuak mobilizatzea PE-en ezarpenari buruzko ezagutzak eta esperientziak trukatzearen eta datuak aztertzearen bidez.

-Lankidetzazko lanean erantzukizun pertsonala, sormena eta jarrera proaktiboa sustatzea PEaren garapenaren kalitatea hobetzeko.

-PE-en eraginkortasuna hobetzeko baliabide didaktikoak partekatzea eta sortzea.

-Gorpuztasuna sustatzea enpatiaren bidez eta harreman pedagogikoan lotura emozional eta gorpuzdunak ezarrita.

-Eraldatzen programako arduradun guztiek azpisareetan parte hartu beharko dute aktiboki beren ikastegietan.

Azpisare bakoitzak lanerako autonomia izango du eta bertan erabakiko dute guztien artean zer lortu nahi den eta nola funtzionatuko duten. Modu kontsekuentean zuzendu eta planifikatu beharko dute; hau da, ahalegin aktiboa egin beharko dute PE bati buruzko baliabideak garatu, bildu eta partekatuta, jakintza horrek beren kide guztiei onura ekar diezaien. Eginiko lana idatziz jaso beharko dute, eta partekatutako eta sortutako baliabide didaktikoak ezagutzera eman beharko dituzte.



Euren arteko interakzioa sortzeko eta PEari buruzko lanaren garapena bermatzeko adinako pertsona kopurua beharko da. Hala ere, kopuru hori taldeak maneiatu ahal izan beharko du.

Ez dira prestakuntza-saioak edo mintegiak. Hortaz, **taldeko kide guztiek modu aktiboan, erantzulean eta proaktiboan parte hartuko dute, hautatutako PEari buruzko ezagutzak eta baliabideak eraikitzeko**. Norberaren zein lantaldearen erantzukizuna eta konpromisoa da.

Kontuan izan beharko da ikastegi ezberdinetakoak izateak ikuspegi eta iritzi anitzak ekar ditzakeela PE bati buruz. Eztabaida, iritzien trukea eta hausnarketa kolektiboa oso garrantzitsua da dagokion PEa hobetzeko eta horren ezarpenean arrakasta izateko.

Espazio bat eraiki beharko da baliabide didaktikoak partekatzeko, eta tresna komun bat hautatu beharko da azpisareko kideak elkarrekin komunikatzeko.

Horrez gain, zenbait rol hartu beharko dituzte beren gain, azpisareak behar bezala funtziona dezan.

Azpisarean proposatutako helburuak lortzeko eta azpisarearen funtzionamendu egokia bermatzeko **hezkuntza-komunitate osoari zabalduko zaion praktika komunitarioa** ekarriko du berekin, etorkizunean hala eskatzen duten ikastegietan hezkuntza-praktika horretan prestatzera, orientatzera eta laguntzera bideratuta (PE).

Talde Teknikoak azpisare bakoitzak eginiko lana ezagutuko du, eta bertan sortutako baliabideetarako sarbidea izango du.

➤ **Tutoretzak:**

Ikastegi bakoitzak tutore bat izango du, eta tutore horrek Talde Teknikoan parte hartuko du. Tutoreak Eraldatzen programako arduradunari aholkua eta laguntza emango dio Hobetzeko Plana diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko lanetan.

Tutoretzak banakakoak eta talde txikikoak izan daitezke. Ikastegi bakoitzaren ezaugarriak, inguruabarrak eta abiapuntua kontuan izango dira erantzun pertsonalizatuagoa eman ahal izateko eta ikastegi bakoitzean dagoen aniztasuna aintzat hartzeko.

PE-en aplikazio-maila, egikaritzearen kalitatea eta inpaktua jaso eta aztertuko dira, baita helburuen lorpen-maila eta hobetzeko proposamenak ere.



10.- ERANSKINAK



I. ERANSKINA:

2024-2027 ALDIRAKO AKORDIOA, PROGRAMA-KONTRATU FORMATUAN, IKASLE GUZTIEN
HEZKUNTZA-ARRAKASTARAKO ERALDATZEN PROGRAMAREN ESPARRUAN

Vitoria-Gasteizen, xxxxxxxx(e)(a)n

Ikastegiaren kodea:

Izena:

Udalerrria:

Lurraldea:



2024-2027 ALDIRAKO AKORDIOA IKASLE GUZTIEN HEZKUNTZA-ARRAKASTARAKO
ERALDATZEN PROGRAMAREN ESPARRUAN

PARTE-HARTZAILEAK

Lucía Torrealday Berrueco, Hezkuntzako sailburuordea, eta (izen-abizenak)

.....(ikastegiaren izena) ikastegiko zuzendaria

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA EMATEN DUTEN HEZKUNTZA SAILAREN
MENDEKO IKASTEGI PUBLIKOENTZAKO 2024-2027 Eraldatzen PROGRAMA-KONTRATUA
dokumentuan ezarritakoaren arabera,

ADOSTU DUTE

Dokumentu horretan zerrendatzen diren akordioak eta konpromisoak aplikatzea.

Akordioa deuseztatu ahal izango da aldeetako batek bere gain hartutako itunak eta
konpromisoak betetzen ez baditu, edo esanbidezko eta elkarren arteko akordio bidez.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, akordio honen bi ale izenpetu dituzte aldeek.

Vitoria-Gasteiz, xxxxxxxx(a)

Lucía Torrealday Berrueco Hezkuntzako sailburuordea	(Ikastegiaren izena) ikastegiko zuzendaria/titularra
--	---



II. ERANSKINA: Palanka estrategiak

1.- Jarduketa-eremua: zaugarritasun-egoeran dauden ikasleak

Helburua da ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzea, eta, horretarako, nagusiki, egoera zaugarrienean daudenekin jardutea. Hori dela eta, beharrezkoa da programaren xede diren lehentasuneko ikasle horiek hautematea.

Horretarako hezkuntza-arrakasta oztopa dezaketen premiak identifikatu eta helburu gisa markatu behar dira, hau da, familia kalteberetako, pobrezia-arriskuan dauden edo gizartean estigmatizatuta dauden taldeetako kide izateagatik gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden ikasle-taldeen berezko premiak; laguntza-premiak, eskola-premiak edo sozio-emozionalak; hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleen premiak edo hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleenak. Ezinbestekoa da, halaber, haien interesak eta indarguneak ezagutzea, haien ikaskuntzak eta emaitza akademikoak hobetzea ahalbidetuko dituen laguntza-estrategia bat ezartzeko.

1.1. Hezkuntza-baldintzak lortu eta ziurtatzeko jarduerak.

Ikasleen profila, inguruabarrak eta premiak zehaztu behar dira, batez ere gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden ikasleenak, eta horien segimendua egin. Kasu horietan, ezinbestekoa da irakasle-tutorearen rola, orientabide-taldeen laguntzarekin, denon artean erabakitze nola gaindi daitezkeen ikaskuntzarako sarbidea eta eskola-arrakasta oztopatzen duten hesiak. Xede diren ikasleei laguntzea, orientazioa ematea eta segimendua egitea.

Honako hauek dira *palanka-estrategien adibideetako* batzuk:

- Ikaskuntzarako sarbide- oztopoak ebaluatzea: ikasleen erresilientzia maila ebaluatzea.
- Familia zaugarrientzako laguntza-sarea
- Estimulazioa eta inklusioa Lehen Hezkuntzan
- Ikaskuntzarako espazio inklusiboak, jakintza partekatuen topagune eta sorgune direnak.
- ...



1.2 Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko jarduketak.

Ezinbestekoa izango da xede diren ikasleei laguntzea, orientazioa ematea eta jarraipena egitea.

Honako hauek dira *palanka-estrategien adibideetako* batzuk:

- Banakako tutoretzak
- Berdinen arteko tutoretza
- Etapen arteko trantsizioa
- Gaitasun digitala hobetzea (familia, ikasleak eta irakasleak)
- Ikasle etorkinei harrera egiteko eta ikasgelan integratzeko plana
- Irakurketa-gaitasuna indartzea
- Ikastegiko biblioteka espazio inklusibo eta komunikazio linguistikoko gaitasuna hobetzeko espazio bihurtzea
- Hezkuntza-errefortzuak eskola-ordutegian eta ordutegitik kanpo, hezkuntzan hobetzeko eta arrakasta izateko
- Ikasleen interesak bultzatzeko eskolaz kanpoko tailerrak (robotika, zientzia, mekanika, artea...)
- ...

2.- Jarduketa-eremua: ikastegiaren jarrerak

Programaren helburua da beste ikuspegi bat eta partekatutako helburuak ahalbidetzea, ikasle guztien hezkuntza-arrakasta lortzeko. Arreta berezia jarriko zaie kalteberenei. Programa ikastegietan ezartzeak kultura-aldaketa bat eragin behar du, hausnarketa, prestakuntza eta lidergo partekatuaren garapena barne hartzen dituen, zuzendaritza-taldeek zein irakasleen kalitatea hobetzera bideratuta. Hori guztia, jakina, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta laguntza-zerbitzuen babesarekin.

Ikastegian jarrera positiboak zeharka garatzeko jarduketak dira.

Honako hauek dira *palanka-estrategien adibideetako* batzuk:

- Bizikidetzaren positiboaren garapena
- Beste ikastegi batzuetako edo ikastegiko bertako irakasleekiko kooperazio- eta lankidetzaren (sentsibilizazioa eta prestakuntza)
- Ikasleei eta familiei harrera egiteko plana
- Irakasleei harrera egiteko plana
- Ikaskuntza-kultura inklusiboa garatzea orientazio-eredu berri baten bidez.
- Curriculum sozioemozionala garatzea
- ...



3.- Jarduketa-eremua: irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak

Prozesu ireki eta malgua da, irakasleen eta ikasleen jarduerak gidatzekoa, ikasleengan beharrezkoak diren eraldaketak garatuta euren arrakasta akademikoa eta pertsonala lortzeko. Ikaskuntza oso garrantzitsua da ikasle guztien garapen integrala sustatzeari dagokionez. Oinarrizko gaitasunak eskuratzea ezinbesteko faktorea da eskola-arrakastarako bidean; eta, horretarako, prozesuaren kalitatea hobetuko duten praktika berritzaileak behar dira. Hezkuntza-inguruneko ikasle zaugarriek gaitasun horiek eskuratzeko bidea zailtzen duten oztopoak gainditu behar dituzte, eta programak horietan izan behar du eragin zuzena.

Honako hauek dira palanka-estrategien adibideetako batzuk:

- Irakaskuntza partekatua
- Metodologia aktiboak (proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, problemetan oinarritutako ikaskuntza, zerbitzu-ikaskuntza, Flipped classroom, gamifikazioa...)
- Gaitasun sozioemozionalak garatu eta aberasteko plana
- Irakurmen-gaitasuna garatu eta hobetzeko plana
- Gaitasun matematikoak garatu eta hobetzeko plana
- STEAM gaitasunak garatzeko plana
- Garapen Jasangarrirako Helburuak garatzeko ikastegiko plana
- Solasaldi dialogikoak
- Ikasleen autoebaluazio-prozesuak
- Talde elkarreragileak
- Ebaluazio hezigarria eta inklusiboa
- ...



III. ERANSKINA: IKASTEGIAREN KONPROMISOEN SEGIDA

Lehen ikasturtea, 2024-2025

- **Programaren arduradun bat izendatzea ikastegian** (*Eraldatzen arduraduna*). Ikastegian egonkortasuna duen irakaslea izango da, gutxienez lanaldiaren 1/3ko dedikazioarekin programarekiko. Asteko egun bat utziko du irakaskuntza-kargarik gabe (aurrerago zehaztuko da zein) Eraldatzen Sarearen koordinazio-lanak egiteko.
- Talde eragilearen osaera: egitura hori irakasleek eta, gutxienez, zuzendaritza-taldeko kide batek osatuko dute, lidergo partekatua izan dadin. Taldeak batzordeak eta lantaldeak sor ditzake erantzukizunak banatzeko.
- Ikastegiaren diagnostikoa gauzatzea, **arreta berezia eskainita ikastegiaren barne eta kanpo ebaluazioetan lortutako emaitza akademikoei**; izan ere, horiek erreferentzia izango dira programaren ondoko ebaluaziorako. Ikastegiaren zenbait alderdi ere izango dira kontuan, besteak beste: hezkuntza inklusiboa, metodologia-estrategiak, bizikidetzaren positiboa, aniztasunari erantzuna (laguntzak antolatzea, irakaskuntza partekatua...), ebaluazioaren prestakuntza-orientabidea, familien parte-hartzea, inguruko beste eragile batzuekiko harremana eta itunak...
- **Jarduketa-ildoak identifikatzea, gaitasun matematikoan eta zientifikoan eta irakurmen-gaitasunean emaitzak hobetzeko esku-hartzea bermatuta.**
- Ikastegiko hiru urterako **Hobetzeko Plana prestatzea**. Plan hori ikastegiko Hezkuntza Proiektuarekin eta Zuzendaritza Proiektuarekin lerrokatuta egongo da.
- Palanka Estrategien Plana (PEP) sortzea.
- Hobetzeko Plana diseinatu ondoren, PEak ezartzen hasi ahalko da. Dagokion Talde Teknikoko tutoreak planari dagozkion ikuskapen- eta aholkularitza-lanak egingo ditu.
- **Derrigorrezkoa izango da Eraldatzen Sarearen eta haren azpisareen informazio- eta prestakuntza-saioetan parte hartzea.**
- **Hobetzeko Plana aurkeztea** Hezkuntza Sailari.
- Plan horretan jasotako jarduerak **denboran zehar bideragarriak**, iraunkorrak eta eraginkorrak diren **eredu pedagogikoak** eta kudeaketa- eta antolaketa-ereduak sustatu behar dituzte, ikastegiaren ohiko dinamikan onargarriak direnak eta **modu autonomoan** gauzatzen direnak.
- 2021-2024 aldian parte hartu zuten ikastegiek beren Hobetzeko Plana eguneratu eta hobetuko dute.



Bigarren ikasturtea, 2025-2026

- **Beharrezkoa bada, programaren arduraduna izendatzea ikastegian** (*Eraldatzen arduraduna*).
- Talde eragilea martxan jartzea.
- Ikastegiko Hobetzeko Plana garatzea PEak ezartzearen bidez, ikasturte honetarako aurkeztutako jarduketak zehaztuta.
- Ikasturte honetan zehar, ikastegiak jarduera bakoitza berrikusi eta baloratu beharko du, horien segimendua eta ebaluazioa egiteko.
- Ikasturteari dagozkion jarduketak amaitu eta ebaluatu ondoren, beharrezkoa balitz, PEPa egokitu egingo da, hurrengo ikasturteari begira. Ebaluazioaren emaitzak Talde Teknikoarekin partekatuko dira.
- **Derrigorrezkoa izango da Eraldatzen Sarearen eta haren azpisareen informazio- eta prestakuntza-saioetan parte hartzea.**

Hirugarren ikasturtea, 2026-

- **Beharrezkoa bada, programaren arduraduna izendatzea ikastegian** (*Eraldatzen arduraduna*).
- Talde eragilea martxan jartzea.
- **Derrigorrezkoa izango da Eraldatzen Sarearen eta haren azpisareen informazio- eta prestakuntza-saioetan parte hartzea.**
- Klaustroan baloratu eta adostutako aldaketa-proposamenak **sistematizatzea eta finkatzea** (PEP).
- Prozesuaren, hezkuntza jardunaren eta ikasleen emaitzak aztertzea eta baloratzea (helburuen lorpen-maila). Arreta berezia eskainiko zaie gaitasun matematiko eta zientifikoaren eta irakurmen-gaitasunaren emaitzei.
- Hobetzeko Plana ikastegiko dokumentu estrategikoetan txertatzea: IHP (Ikastegiko Hezkuntza Proiektua), AJA (Antolakuntza eta Jarduera Araudia), bizikidetz-plana...
- Ebaluazioaren emaitzak Talde Teknikoarekin partekatuko dira.

